



## **2006/115/CE DIREKTIBA BERTAN BEHERA UZTEKO EUROPEAR BATZORDEARI ESKAERA**

"Intelektual jabetzaren esparruari dagozkion alokatze eta mailegu eskubideak zein bestelako eskubide batzuetaz" ari den 2006/115/CE europear direktibak Europako Batasunako kide diren estatuek liburutegiei kanon bat kobratzera behartzen ditu, zergatik eta bere eginkizun nagusia egiteagatik: liburuak eta era guztietako agirien maileguen bidez irakurketa eta jakintza bultzatzeagatik.

Espaniar estatuko irakurleok, ehundaka liburuzain, idazle, liburutegizain, editore, intelektual, artegile, zientzialari, maisu-maistra eta irakasleekin batera, Europako Komisioari zera eskatzen diogu:

Delako direktiba BERTAN BEHERA utzi dezala hainbat arrazoirengatik, besteak beste:

- Irakurketa inongo murrizketak eta mugak baldintzatuta egon behar ez den ondare eta eskubide publikoa delako.

- Kanonak liburutegia bezalako zerbitzu publiko batean merkataritza logika sartzea dakarrelako.

- Sektore pribatuak, hau da, editatze industriak eta eskubide gestioingintzarako elkarteeek, (existitzen den lekuan kanonaren zati bat honezkero gordetzen dutenek), sektore publikoari zerga kobratzea ez delako zilegi.

- Egun liburutegi batek liburuak erosten duenean egile eskubideak ordaintzen ari delako. Ez da bidezkoa mailegu zerbitzua egiteagatik ere ordaintaraztea, etekin komertzialik gabeko jarduera izanda.

- Mailegu zerbitzu publikoa ez delako editatzaile eta idazleen etsai, bere bide-lagunik onenetakoa baizik. Egile askok badakite, eta horregatik liburutegietan beren liburuen mailegu zerbitzuagatik dirua jasotzeari uko egiten diote.

- Liburutegietako maileguek liburu salmenta murrizten dutela esatea ez delako egia. Aitzitik: Liburutegiek ezinbesteko egiten dituzte liburuak, hartara bere salmenta bultzatzen. Liburutegi batek ondo funtzionatzen duen herrietan liburuaren salerosketa askoz biziagoa da gainontzekoetan baino.

- Erabiltzaileak kanona zuzenean ordainduko ez badu ere, bere kosteak liburutegien aurrekontuetatik murriztuko dira eta ondorioz liburutegi publikoei liburu-erosketak egiteko ahalmena gutxituko zaielako.

- Aurrekontuak murriztean, batez ere oso gutxi edo bat ere ezagutzen ez diren egile askoren idazlanak eta gutxiak diren lan asko liburutegietan sartuko ez direlako, hain zuzen ere, beren existentzia publikoa liburutegi publikoek bakarrik bermatzen dien horiek. Horrekin kultur arloan horren beharrezkoa zaigun aniztasuna izango da kaltetua.

- Europear herrialderik gehienak liburutegi sistema ahulak dauzktelako. Kanonak beren zerbitzuak hobetzea eragotziko die, eta dudarik gabe, Europako Batasunean herrialde batzuk eta besteean arteko aldeak handituko ditu.

- Maileguko kanonaren bidez, liburutegi batek zenbat eta gehiago eta hobeto lan egin, zenbat eta liburu gehiago maileguan utzi, orduan eta diru gehiago ordaindu behar duelako paradoxa gertatzen delako.

- Herritarrengan irakurzaletasuna bultzatzeko liburutegizainen gogo eta aldarte onean oso eragin txarra izan dazekeelako.

Arrazoi hauengatik guztiengatik, eta Europako eraikuntza kultur eta sozial oinarrien gainean, eta ez komertzio hutsezkoen gainean, egin behar dela uste dudalako, orrialde honen bestaldean nere sinadura erantsi nahi diot Europako herrialdeetan lortu nahi dugun MILOI BAT sinadurei, 2006/115/CE direktiba behin betiko BERTAN BEHERA geratu dadin.